

ZIENTZIA ESPERIMENTALAK

Irati Montoia Estebanez

CIENCIA EN LA EDUCACIÓN  
INFANTIL:  
EL TRATAMIENTO DEL  
PROBLEMA DE LOS RESIDUOS/  
*ZIENTZIA HAUR HEZKUNTZAN:  
HONDAKINEN ARAZOAREN  
TRATAERA*

TFG/GBL 2013

**upna**  
Universidad  
Pública de Navarra  
Nafarroako  
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales  
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Grado en Maestro de Educación Infantil  
*/ Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua*



**Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua**  
**Grado en Maestro en Educación Infantil**

Gradu Bukaerako Lana  
Trabajo Fin de Grado

**ZIENTZIA HAUR HEZKUNTZAN:**  
**HONDAKINEN ARAZOAREN TRATAERA**  
***CIENCIA EN LA EDUCACIÓN INFANTIL:***  
***EL TRATAMIENTO DEL PROBLEMA DE LOS***  
***RESIDUOS***

Irati Montoia Estebanez

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA  
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA**  
**UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

**Ikaslea / Estudiante**

Irati MONTOIA ESTEBANEZ

**Izenburua / Título**

Zientzia Haur Hezkuntzan: Hondakinen Arazoaren Trataera

Ciencia en la Educación Infantil: el tratamiento del problema de los residuos

**Gradu / Grado**

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Infantil

**Ikastegia / Centro**

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales

Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

**Zuzendaria / Director-a**

Maria Napal Fraile

**Saila / Departamento**

Psikologia eta Pedagogia Saila arabera / Departamento de Psicología y Pedagogía

**Ikasturte akademikoa / Curso académico**

2014/2015

**Seihilekoa / Semestre**

Udaberria / Primavera

## Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapitulu hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3854/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituen. Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3854/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako modulua/ak esparrua ematen dio marko teorikoa garatzerako orduan, izan ere, graduan zehar psikologia eta pedagogia esparruan emandako autore ezberdinen teoriak erabili ditut, horien artean, Ausubelen konstruktibismoaren teoria.

Didaktika eta diziplinako modulua/ak bidea eman digu lanaren mamia zehazteko, bertan emandako zientziaren inguruko ezagutzak eta zientziaren irakaskuntzak Haur Hezkuntzan Zientziaren Didaktikak duen garrantziaz abiatu naizelako nire lana egiterako orduan.

Halaber, Practicum modulua/ak lan praktikotan garatzen da. Bertan zientziaren inguruko ezagutzak praktikoki garatzen dira, zientzia esperimentalarekin zerikusia duten zenbait jardueren sekuentziazioaren bitartez.

Beste alde batetik, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko da “MARCO PRÁCTICO” atala, baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

## **Laburpena**

Ondorengo graduko lan honek, hiru helburuei erantzuna ematea bilatzen du: behar sozial bati erantzutea – kontzientzia sortzea eta hondakinen arazoari buruz jardutea-, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan aplikatuko den proposamen bat dela medio, ikastetxeak eskaintzen dizkigun baliabide guztiei probetxua ateraz burutuko da. Berriozarko Mendialdea II ikastetxean garatu izan den proposamena, hurbilketa konstruktibista batean oinarritutako bide alternatiboak proposatzen ditu ikaskuntza esanguratsua egiteko. Errandako guztia, tratamendu praktikoago batez jarraitu izan den hondakinen arazoaren aurre diagnostiko batean zentratuko da. Tratamendu honen kalitatea hobetzea uzten, eta gainera hondakinen arazoa lantzea modu ezberdinak eskaintzen dituzten ikuspuntuak, lan egiteko gune ezberdinetatik pertsona ezberdinen testimonioak proposamena osatzeko aurkezten dira.

Hitz gakoak: bigarren zikloa; esplorazio jarduerak; etika; hondakinak; konstruktibismoa

## **Resumen**

El presente trabajo de grado busca dar respuesta a tres objetivos: responder a necesidad social - generar conciencia y hábito sobre el problema de los residuos-, por medio de una propuesta práctica aplicable en un aula de segundo ciclo de Educación Infantil, que saque todo el provecho posible a todos los recursos que nos ofrece el centro. La propuesta, que se ha desarrollado en el colegio Mendialdea II, de Berriozar, propone vías alternativas basadas en una aproximación constructivista para fomentar el aprendizaje significativo. Todo lo dicho se centrará en un diagnóstico previo del problema de los residuos, seguido por un tratamiento algo más práctico de los mismos. Para completar la propuesta se presentan los testimonios de varias personas de diferentes ámbitos de trabajo, que ofrecen diferentes visiones sobre las maneras de trabajar el problema de los residuos en el aula, y permiten así mejorar la calidad de ese tratamiento.

Palabras claves: actividades de exploración; ética; constructivismo; segundo ciclo; residuos

**Abstract**

The following degree project has the aim of giving a response to three objectives: give an answer to a social issue – create conscience and custom about the issue of the waste-, having the proposal to apply in the pre-school education, that is going to make the most of all the possible resources of that institution. This proposal, that has been applied in the school of Mendialdea II in Berriozar, is proposing new alternative ways that are going to be based in a constructive approximation to foment the meaningful learning. To complete the proposal, the testimonies of different people that are from different work spheres are presented. Those testimonies are offering different views of the way of working the issue of the waste in the classroom, and are permitting to improve the quality of that treatment.

Keywords: activities of exploration; constructivism; ethics; pre-school education; residue



## Aurkibidea

<b>Aurrekariak</b>	
<b>1. Marko Teorikoa</b>	<b>5</b>
1.1. Etxe Hondakinak: Definizioa eta Konposaketa	5
1.2. Hondakinen arazoaren jatorria eta hedadura	9
1.3. Legea vs kontzientzia etikoa	14
1.4. Konponbide posibleak	20
1.5. Ikaskuntza prozesua Haur Hezkuntzan	24
<b>2. Helburuak</b>	<b>27</b>
2.1. Helburu orokorrak	27
2.2. Helburu espezifikoak	29
<b>3. Marco Práctico</b>	<b>31</b>
3.1. Presentación del trabajo práctico	31
3.1.1. El contexto	32
3.2. Plan general	33
3.3. Evaluación	37
3.4. Resultados	38
3.5. Otras aproximaciones	44
3.5.1. Entrevista	44
<b>4. Valoraciones</b>	<b>45</b>
<b>5. Implicaciones didácticas</b>	<b>47</b>
<b>6. Discusión</b>	<b>51</b>
6.1. Propuesta didáctica	51
6.2. Análisis de la propuesta	53
6.2.1. El trabajo dentro del aula	55
<b>Agradecimientos</b>	<b>56</b>
<b>Erreferentziak</b>	<b>57</b>



## AURREKARIAK

Lan honetan hondakinen tratamendua Haur Hezkuntzan lantzeko proposamen didaktiko bat burutzen da. Alde batetik, gizarteko behar bati erantzuna emateko, bestetik, hautatutako ikastetxe mailan gaia garatzeko baliabide ezin hobeak ematen direlako, hots, baratza eta konpostadora. Eta azkenik, HHn garatzeko proposamen berri bat sortzeko. Lehenengo arrazoia arakatuz, kaleetatik paseatzen denean, hondakinak nonahi agertzen dira, baina batez ere lurzoruan botata. Hori dela eta, hondakinak gobernuarengatik ez direla ondo kudeatuak izaten pentsa daiteke. Baina aldi berean, etika arazo bat izan daiteke ere, hots, balore krisia dagoela. Arazo hau, gure egunerokotasunean txertatua dagoen lagun kuttuna dugu. Alde batetik, geroz eta gogo kartsuagoekin eguneroko gizartea behin eta berriz kolpatzen duelako. Eta bestetik, eskolan somatutako behar bati erantzuna emango behar diolako: hondakinak gaur egungo arazo bat direla, eta eskolari gertutik ukitzen diotenak gainera. Eskolan ere gertatzen delako eta eskolak berak, hiritartasunerako hazi behar duelako. Halaber, irakasleek hiritartasunerako erakutsi behar dutenez, gai honek erronkak horren inguruan sortuko ditu: ikasleak gizartearekin konprometituz eta gizarteari eragiten dioten arazoak hurbiletik aztertuz. Horretarako lan hau, haurrak txikitatik zeintzuk diren hondakinen arazoen irizpideak eta linea nagusienak ikus dezaten bideratuko da. Beste hiztetan erranda, hurrengo puntuan aztertuko diren gaiak jorratuz eta haurrak arazo hau hurbiletik ezagutu dezaten.

Behar bat betetzen ari delarik, baldintza aproposak agertzen dira lan hau aurrera eramateko. Hala nola, lan honen burutze-arrazoi nagusienetako bat hurrengo delarik: HHrako proposamen berritzaile bat sortzea. Modu honetara, ikastetxean hondakinen arazoari aurre egiteko dituzten baliabideekin oso egokia suerta daiteke lan hau burutzea. Beti ere, ikastetxearen ideiekin eta planteamenduekin bat eginez, horiek berritzeko eta hobetzeko hausnarketa gune bat aurkeztuz. Hortaz, hurrek, hondakinen gaia landuta edukiko dutela eta azaleko ezaguera orokor bat izango dutela suposatzen denez, agian lan hau proposamen berri bat egiteko tresna bat bezala aurkeztu daiteke. Horretarako, eskolako tresnak eta baliabideak erabiliz, hondakinen inguruan egindako jarduerak hobetzeko asmoz, proposamen berritzaile hau aitzakia

bezala aurkeztu daiteke. Honen bidez, egindakoa eta egingo denaren arteko zubiak ezarri.

Ikastetxean, gai honen inguruan hurrek ezagutza batzuk edukiko dituztelako aurre-ideiarekin jokatu da. Hori dela eta, proposamen berri bat sortzera abiaraziko da lan hau. Hau da, hondakinei buruz aurretik egindako lanen eta egingo direnen arteko zubiak ezarriko dituen proposamen berritzaile bat. Halaber, aipaturiko aurre-idea horiek existitzen ez badira, hots, gelan hondakinen gaia joratu ez baldin badute, alegia. Orduan, proposamen berritzaile hori beti ere ikastetxera moldatuko da. Beste hitzetan esanda, ikastetxearen egoerara eta beharretara proposamen hau moldatuko da. Haur Hezkuntzan gaur egunean hondakinen arazoa lantzeko tresna eta baliabide didaktikoak (proposamenak) sortzea apustu ezin hobea izan daitekeelako. Alde batetik, hondakinen arazoan egunerokotasuenan kokatuta dagoen gai bat delako eta bestetik, gizarte osoari eragiten diolako; eta azkenik, ikastetxeek proposamen berritzaileak sortzea behar dutelako, arazoari instituzioetatik erantzun bat emateko.

Lan hau Berriozarko Mendialdea II Ikastetxe Publikoko Haur Hezkuntzako bigarren etapan testuinguratuko da. Halaber, ikastetxean gai honekin denbora dezente badaramatela aipatu beharra dago. Gainera, lan hau aplikatuko den Mendialdea II Ikastetxe Publikoan, bost urteko hurrek, jada, eta aurretik aipatu bezala, hondakinen arazoa ezagutzen dute. Ingelerako klaseetan gai hori aurretik joratu dutelako, hain zuzen ere. Hori dela eta, hein handi batean, haur horiei hondakinen arazoa sarraraztea erraza egin da. Baliabide nahikoak daudelako: baratza eta konpostaria; bai eta irakasle bat gai horien inguruan lan egiten ibiltzen dena eta aditua dena ere. Modu honetara, gai praktikorako baliabide hauek probatu dira. Hauen erabilera hurrek modu hurbil batez arazoaren alde guztiak antzematen eta gehienak lantzen ere lagunduko baituelako. Halaber, gai honen inguruan lan egiten dabilen irakaslea inplikatu behar delakoan, galdetegi bat prestatu da ere. Galdetegi hori hondakinen filosofiaren inguruan arituko da eta marko praktikoan txertatuko dira honen ideiarik nabarmenetakoak.

Hortaz, argi eta garbi, lan hau hiru arazoiengatik burutu da: alde batetik, gizarteko behar bat bezala agertzen delako. Beste alde batetik, ikastetxean baliabide nabariak daudelako eta eskaintzen direlako. Eta azkenik, hobekuntza proposamen bat egiteko.

Ikastetxean dauden metodoak aztertzeko eta analisi sakona egiteko guztiz aproposa suerta daitekeelako. Beraz, hiru arrazoi hauek izango dira lan honen helburu nagusienetakoak. Hiru arrazoi lan honen hiru helburuei erantzuteko hautatu dira: gizarteko behar bati erantzuna emateko. Hau da, beharrezkoa delako gizarte mailan, kasu honetan gela mailan, erantzun bat sortzea arazo honi aurre egiteko. Ikastetxean dauden lanabesak eta baliabideak probesteko. Hau da, horiei etekin handienetako ateratzeko eta haurrek ikastetxean eta ikasgelan, aurkeztutako arazoari aurre egiteko baliabide nahikoak daudela konturazteko. Eta azkenik, HHrako proposamen berritzaile bat sortzeko. Material didaktiko erabilgarriak bai irakaslearentzako bai HHko bigarren ziklorako irakasleendako sortzea apustu ezin hibe delako eta beharrezkoa ere. Modu honetara, lan hau ezin hobea izango da: bai ikastetxe mailan agertuko diren gai honen inguruko hutsuneak betetzeko, baita lana amaitu ondoren edonork kontsulta ahal izateko eta irekia egoteko ere. Beraz, lan honek analisisa egiteko aukera paregabeak ekartzen ditu. Hausnarketa lan hau definituko duen premisarik garrantzitsuenetarikoena izango baita.

Eta guzti horrek beraz, oina ematen dit aurkeztutako hirugarren arrazoi horri jarraipena emateko: HHn proposamen berritzaile bat egitea, bertan dauden arazoak hobetuz. Eta kasu honetan, hobetu behar den arazoa hondakinen irakaskuntza moduarekin zerikusi handia dauka. Eta halaber, nola gai hau HHren Zientziaren Didaktikan dagoen teoria garrantzitsu batekin lotu daitekeen. Beraz, horretarako, *marko teorikoan* gabezi horiei erantzuteko, hots, zientzien didaktikaren irakaskuntzarenak, ikaskuntza esanguratsuaren teoria azalduko da, kontruktibismoa lanabez gisa erabiliz. Eta horrela, arazo hori hobetzeko laguntza handiak eskainiko dira. Nolabait erranda, arazo hau azken finean, ikasten ikasteko bide bat bezala aurkeztu behar delako. Hori dela eta, aukeratutako metodologiak (soziokonstruktibismoa eta indagazioa) erabiliz, HHko ikaskuntzan dauden gabeziei erantzutea da nire helburuetako bat. Gabezi horietan *marko praktikoan* gehiago sakonduko da.

Beraz, aipaturiko guzti honekin eta ikastetxean aurkituko diren baliabide ezin hobeeekin baita adituen laguntzarekin batera, lana burutuko da. Ustez, hobetu behar den arazo hori betetzeko tresnak eta teknikak aurkeztuz bai eta landuz ere; eta hezkuntza komunitatearen inplikazioaren bitartez ere. Hobetu behar den arazo horri erantzun

egokiak eta positiboak emanaz eta horietan sakonketa nabaria eginez, bai eta arazoaren aurrean erdizkako erantzunekin aurkeztu gabe. Hau da, arazoari aurrez aurreko erantzun bat emanaz. Beraz, lanean zehar proposatutako proposamenarengan baita hura sortzeko erabili den metodologiarengan ere sutzuki sinistu izan dela, eta gainera, konfiantza osoz metodologia hori aplikatu dela agerian utziko da. Hortaz, ikastetxeak izan dezakeen hondakinen arazoarengan behar hori gehixeago betetzeko saiakera bat egingo da, modu positibo eta konstruktibista batez burutuz. Horregatik, aurretik aipatu bezala eta ideia horrengan sakonduz, *marko praktikoan* egunerokotasunean agertzen diren arazoetan eta ikasleei interesatzen zaienetan zentratuko da proiektu honetan erabiliko den metodologia. Horretarako, jarduera motibagarriak planteatuz haurren atentzia erakarriko da. Lanean proposatutako metodologian sutzuki sinistu izan dela eta konfiantza osoz metodologia hori aplikatu izan dela ere agerian utziz. Hortaz, ikastetxeak izan dezakeen hondakinen arazoarengan modu positibo eta konstruktibista batez behar hori gehixeago betetzeko saiakera bat egingo da.

Goian aipatutako erronkei aurre egiteko, gaia gidatzeko baliagarriak eta guztiz erabilgarriak direlakoan, aurkibidean islatzen diren puntuak jarraituko dira. Beraien artean eta lan osoarekiko ere koherentzia gordetzen dutelako. Beraz, lan hau ikuspuntu honetatik bideratzeak, irakurleari lana errezten dio. Puntuak koherenteak direlako euren artean eta elaborazio kolektibo batean oinarrituak daudelako. Beste hitzetan erranda, nolabait sare bat osatzen dutelako euren artean eta isolatuak ezin direlako irakurri.

*Marko teorikoa*, zientzia irakaskuntzaren ikuspegitik, konstruktibismoan eta ezagutza esanguratsuan zentratuz aurkeztuko da. Eta marko teorikoak, aipatu bezala, lotura estuak edukiko ditu marko praktikoarekin. Hondakinen arazoaren ingurukoa izango dena, eta Ausubelen teoriak praktikara eramaten dituenak, bai eta uztartu ere. Aldi berean, hondakinen gaian zentratuz ere. Beraz, marko teorikoan etxeko hondakinak definituko dira eta haien konposaketa zein den azalduko da. Izan ere, legeak dioena hondakinen inguruan, modu kritiko batez hausnartuko da ere, kritikotasuna garatzeko asmoz. Eta horretarako, *legea vs etika* puntua sotuko da. Jarraitzeko, aipaturiko legearen azterketa kritikoaz aparte, konponbide, ustez, etiko bat proposatuko da eta

Haur Hezkuntzan nola ikasten den puntua nabarmendu egingo da ere, puntu honetan, ikaskuntza esanguratsuan sakonki zentratuz.

Aldiz, *marko praktikoan*, lan honen analisia burutuko da, hau da, lanaren zergatian sakonketa eginez, material eta metodoetan, jardueren segidan, emaitzetan eta egindako elkarrizketetan. Lana ixteko, eztabaida bat burutuko da eta sintesi antzeko bat ere egingo da.

Azpiratu beharrekoa da ere, elaborazio kolektiboa oso garrantzitsua eta halabeharrezkoa izan dela lan honetarako. Batez ere, nire Gradu Bukaerako tutoreak puntu hauetan kontribuzio nabarmena egin duela eta hori azpiragarria izan delako lan hau osatzerako orduan.

## 1. MARKO TEORIKOA

### 1.1. ETXE-HONDAKINAK: DEFINIZIOA ETA KONPOSAKETA

*Ecología-Hoy* webgunearen arabera ("*Residuos domésticos*", 2012), etxe hondakinak etxean sortzen diren zaborrak dira. Gehienetan solidoak izaten dira, baina likidoak (margoak) eta gaseosoak ere izan daitezke. Hondakin solido hauek banatu gabeko eta birziklatu gabeko materialetan osatuak daude, hala nola, elikagaiak, palstikoak, latak, botilak, harriak, zaborrak, plastikozko jostailuak eta abar.

Aldiz, *desechos-sólidos* webgunearen arabera ("*Desechos sólidos*", 2007), etxe hondakinak, etxe zaborrak bezala definitzen ditu. Batzuetan gehitu ahal zaizkie ondoko industria-gune baten zabor industrialak ere. Zabor hauek, etxean sortu diren hondakinei erreferentzia egiten diete eta bertan dauden materialak ez dira banandu ezta birziklatzera eraman ere.

Eta azkenik, *Facuaren* arabera ("*Gestión de residuos domésticos y reciclaje*", 2009), etxe hondakinak, gizarte-komunitateko bizitzan sortzen diren zaborrak dira. Etxean sortutakoak, errepideen garbiketan sortutakoak edo gune komertzial edo industrialetan sortutakoak.

Definizio guzti hauek aztertuta, norbaiti okurritu al lekieke hurrengo definizioa: etxe hondakinak, gure etxe zaborrak eta etxe batean bizi diren gizakiak sortzen

dituzten zaborrak edo gehiago erabili ezin diren materialak dira. Mota askotakoak eta forma askotakoak izan daitezkeenak eta gauza askotarako erabil daitezkeenak ere.

Izan ere, konposaketari dagokionean, aipaturiko hiru informazio iturri horiek bat egiten dute. Guztientzat konposaketa berbera edo anztekoa da: alde batetik, hondakin biodegradagarriak (elikagaiak) daude, bestetik, bizigabeak (bloke apurtuak), birziklatu daitezkeenak (plastikoak), konposatuak (janzteko materialak) eta arriskutsuak (zabor toxikoak).

Hortaz, definizioek etxe-hondakinak zer diren eta zertaz dauden konposatuak argi eta garbi uzten dute. Halaber, aurrerago hausnartuko den legea, alde teknikoago batetik aztertuko ditu zer diren etxe-hondakinak eta zertaz osatuak egongo dira. Hala nola, zergatik hondakin batzuk kontsideratuak diren etxe-hondakinak eta ez industria hondakin arriskutsuak ere aztertuko du.

Ondoren, hondakinen konposaketa azertzeko taula bat ipiniko da. Taula horretan, hondakinen konposaketaren portzentaiak ageriko dira eta horretarako, azterketa bat burutuko da.


Hondakinen konposaketa aztertzen bada (1. Taula), materialak hurrengoak izango dira: metalak, beira, lurra eta errautsak, papera, kartoia, egurra, plastikoak, gomak eta larrua, zuntzak eta elikagaien hondakinak. Materialen proportzioa beraz, erosteko ahalmenaren arabera neurtuko da. Modu honetara, estimagarriagoak izango diren materialak (Seoáñez, 2000), zabor organikoak izango dira (%40tik - %55tera); ondoren, papera (%14tik - %32ra); ondoren, plastikoak (%10etik - %16ra); jarraitzeko, beira (%6.50etik - %16.70era); eta azkenik, gomak eta larruak (%0.30etik - %1,20ra).

Aldiz, garapenaren bidean dauden herrialdeetan, portzentaiak nabari aldatzen dira. Batez ere metaletan, papera eta lurra baita errautsa bezalako materialetan ere. Aldaketa hauek oso nabariak dira eta hondakinak birziklatzeko plan indartsuen faltagatik izan daitekeela pentsa daiteke. Halaber, garapenaren bidean dauden herrialdeak, euren ikastetxeetan, hondakinen arazoa tratatzeko proposamenik edukiko duten galdera airera botako da. Kasu honetan burutzen ari den lan hau, garapenaren bidean dauden herrialdeentzako baliogarria izatea ere espero da. Horretarako, beraiek erabiltzearen irekia egongo da.



**1. TAULA. ETXE HONDAKINAK DEFINIZIOA ETA KONPOSAKETA, herri garatuetan eta garapenaren bidean (Seoáñez, 2000)**

Materialak	Garatua	Garapenean
Metalak	%3,60 - %8,00	%0,70 - %1,60
Beira	%6,50 - %16,70	%1,00 - %3,80
Lurra eta errautsak	%0,20 - %5,00	%6,00 - %16,00
Papera	%14,00 - %32,00	%2,60 - %5,00
Kartoia	%5,00 - %10,00	%1,00 - %4,80
Egurra	%0,20 - %1,20	%0,10 - %1,00
Plastikoak	%10,00 - %16,00	%3,80 - %7,40
Gomak eta larruak	%0,30 - %1,20	%0,20 - %1,40
Zuntzak	%3,25 - %6,50	%2,00 - %4,10
<b>Elikagaien hondakin organikoak</b>	<b>%40,00 - %55,00</b>	<b>%58,00 - %80,20</b>



**1. IRUDIA. ETXE HONDAKINAK DEFINIZIOA ETA KONPOSAKETA**

(Ingurumeneko Ministerioa, 1999)

Material bakoitza banan banan aztertuz, zera antzeman daiteke (Ingurumeneko Ministerioa, 1999):

Beirak energia pilo bat kontsumitzen dutela eta substantzia nahiko toxiko batzuentatik sorturik daudela. Hala nola, area (silizea), sosa (sodio-karbonatoa) eta kareharria (kaltzio-karbonatoa). Aldi berean, beiraren kontsumoa altua da (%7,6) eta euren eragina etxe-hondakinetan nahiko garrantzitsua da ere.

Paperari dagokionean, gaur egun, material hau sortzeko, egurra eta ur pilo bat kontsumitzen duen prozesu kimiko bat erabiltzen da. Beraz, energia eta produktu kimiko horien eraginaren ondorioz, paperaren pasta lortzen da. Honen kontsumoa biztanle bakoitzeko eta urte bakoitzeko nahiko altua da (%18,5).

Plastikoei begira, industrializazio sektore guztietan aurki daitezke. Batez ere, euren aldaberatasunagatik, fabrikatzeko erraztasunagatik, koste baxuengatik, ingurumen faktoreei egiten dieten erresistentziagatik eta gardentasunagatik. Beraz, oso erabilgarriak diren materialak dira. Halaber, ez diete hondakinei modu eraginkor batean eragina egiten: %7an pisuan eta %20an bolumenan. Batzuetan, plastikoak, nahiko ugariak direlaren inpresio bat dago; baina hori euren dentsitate baxuagatik, erresistentzia altuagatik, eta aldaezinak direlagatik, bai eta forma hutsetan eraldatuak daudelarik izan daiteke. Horrela, euren ordezkapena errazagoa izan daitekeelarik.

Metalei begira, euren ezaugarriengatik oso erabilgarriak dira: konformazio erraza, arintasuna, kondizio magnetikoa, eta birziklapen erraztasunarengatik. Batez ere elikagaien sektorean, ontzien sektorean eta sektore industrialean erabiltzen dira. Aluminiozko ontziekin batera, etxe-hondakinen %4,1 suposatzen dute. Aluminioa, metala bezala kontsideratua den materiala, bere ezaugarriengatik oso erabilia da: beren arintasuna, eroankortasun handia, deformatze handia eta korrosioari erresistentzia diotelarik. Honen fabrikazioan energia kantitate ikaragarriak erabiltzen dira, hala nola, 13500kWh metal (aluminio) tonelada bakoitzagatik.

Tetra-brikei dagokionean, euren komertzializazioa 1963.urtean hasten da. Eta euren ezaugarri positiboenetarikoak hurrengoak izan daitezke: arintasuna eta elikagaiak egoera optimoetan mantentzeko kapazitatea. Gure herrialdean urtero 4600 milioi

mota honetako ontziak kontsumitzen dira, hau da, 3kg biztanle bakoitzeko eta urte bakoitzeko (CRANA, 2012).

Materia organikoak aztertuz, hauek, elikagaien hondakinak, prestatuak edo ez, eta proportzio baxuago batean lorezaintzako hondakinak dira. Espainian materia organikoa etxe-hondakinen totalaren %48,9a susposazten du.

Beste hondakinen barnean, hondakin arriskutsuak eta ez arriskutsuak bereizi behar dira. Arriskutsuen barnean, pilak, ploriklorobifelinoak eta ploriklorotrifelinoak aurkitzen dira. Halaber, pilen artean ezberdintasunak egin behar dira zeren eta batzuk oso kutsagarriak baitira, hala nola Zink-plomoa dutenak eta alkalinoak direnak. Hauei gehitu behar zaizkie hodi fluoreszenteak eta kontsumo baxuko lanparak, baita medikamenduak, olio mineralak, margoak, eta aparatu elektronikoak ere. Eta azkenik, ez arriskutsuen artean landare-olioak, zuntzak, egurra eta altzariak aurkituko lirateke (CRANA, 2012).

## **1.2. HONDAKINEN ARAZOAREN JATORRIA ETA HEDADURA**


Gune gehienetan -oso argi azaltzen da- hondakinak arazo bat direla eta arazo horrek jatorri bat duela. Batzuk hondakinen arazoa gaur egunekoa dela pentsatzen dute, hau da, lehen ez zela existitzen. Beste batzuk hondakinen arazoa zerbait lineala dela eta historian zehar mantendu izan dela modu lineal bat bezala pentsatzen dute. Baina badaude azkeneko batzuk haratago joaten direnak eta, arazoa betidanik egon dela, eta historian zehar (gradu ezberdinetan) beti existitu dela pentsatzen dutenak—. Hau da, aldagaitza izan ez dela, hau da, gorabeherak izan dituela historian zehar, segun eta zeintzuk izan diren aplikatutako legeak, gizartearen egoerak, baita giza-kontzientziazioa ere (Arregui, Ruiz, Jimeno, Mato, Escuer, 2014).

Izan ere, esku artean dugun arazo hau betidanik existitu dela, hala nola, neolitikotik hasita oso argi dago (CRANA, 2012). Emandako trataeran eta gaiak sortu al dezaken atentzian egon daitezke gakoak. Beste hiztetan erranda, gizartean bizi diren pertsonengatik sortua izan den arazoa dela eta beraiek izan direla trataera ezberdinak sortu dituztenak, bai eta askotan ez zaiola behar bezalako atentziorik jarri ere. Baina gizartea sakonki aztertzen bada, kontsumismoan oinarritua izan den gizartea dela

konturatzekoa da. Hots, produkzio modu berezi bat duena, batez ere hondakinak eta beste hainbat material, ahalik eta azkarren produzitzeko, hauekin sortzen diren arazoak areagotzeko besterik ez (Ronan de Calan, 2012). Eta honekin batera, biosferaren eta giza-jardueren artean ika-mikak sortzen dira eta sortzen jarraitzen dute etengabe, gure planetan desoreka sakonak sortuz.

Egun, zazpi herrialdeek, munduko populazioaren %21 direnak, gure planetaren baliabide energetiko eta naturalen %50a kontsumitzen dutelarik ("*The Story of Stuff*", 2007). Baliabide naturalen gainustiaketak, gehi kutsaduraren areagotzeak, sistema naturalen onbideratzearen kapazitatea mehatxuan jartzen dute. Areagotze honetan, berez, faktore ugari parte hartzen dute. Hala nola, demografiaren hazkundea, hirietan eman den giza-kontzentrazio altua, erosi eta botatzeko materialen sarrera, hondakinak ezabatzeko zailtasun ikaragarriak eta zarrastelkeriak. Beraz, bi gauza garbi agerian utzi daitezke: hondakinen arazoa ez dela arazo berria, eta honen hedadura, oso zabala dela; baina batez ere eragin handiagoa duela hirietan herrietan baino. Horregatik, lan honetan zehar burutu behar den proposamena, hiri batean burutzerako prestatuko da, hirietan hondakinen kopurua izugarri altxatzen baita. Gainera, Estatu Batuetan gaur egunean, etxeak geroz eta handiagoak egiteko irizpideekin bat eginez, material gehiago sartuko ahal dira etxeetan; eta ondorioz, hondakinen arazoa geroz eta gehiago areagotuko da. Beraz, hondakinen arazoak errotik konpondu ordez gobernu adabakiak jartzen ibiltzen da.

Baina hondakinen arazoa, aurretik aipatu izan den bezala, historian zehar aztertzen baldin bada, momentu konkretu batzuetan, garrantzi gehiago edo gutxiago edukiko du (2.irudia).



## 2. IRUDIA. HONDAKINEN ARAZOAREN JATORRIA ETA HEDADURA, historia ikasten: historiaurrea eta historia (Historia Ikasten, 2012)

Irudia (2. Irudia) aztertzen bada pixka bat, bertan, zeintzuk diren garai bakoiztean produzitzen diren materialak eta objektuak baita produktuak ere antzeman daiteke. Hortaz, *Paleolitoan*, sua, egurra, margo anturalak eta material naturalekin egindako tresnak agertzen dira. Modu honetara, gara guztiak birpasatu daitezke. Hala ere, hurrengo paragrafoetan gizakiaren historia irudi hau kontuan hartuta birpasatuko da.

*Paleolitikoa* marko bezala izanda, gizakiak hasieran nomadak ziren eta naturak uzten zizkien errekurtsoak ustiatzen zituzten. Gizakiaren jatorrietatik, Neolitikora arte, hau da, orain direla zortzi mila urte, gizakia ehizari-bilatzailer bezala naturaz probetxua ateraz bizi izan zen. Hortaz, garai horretan bere eragina azalekoa izan zen.

*Neolitikoa* marko bezala hartzen baldin bada, gizakia sedentario izatera bilakatu zela lehenengo aldaketa sakona bezala hartu daiteke. Hau da, bere harremana ingurumenarekin erabat aldatu zuela, garai honetan suertatu izan zen iraultza sakonagatik batez ere. Modu honetara, gizakiak bere ongizaterako nahi zuena ustiatzera heldu zen: ingurumena bere probetxurako aldatzeko kapaza izatera heldu zen. Hala nola, espazio zabalak eraldatu zirela ereiteko zelaiak sortzeko. Hortaz, nekazaritzak zekarren garapenarekin, bai eta honek bultzatutako ustiapen ekonomiko eta demografikoarekin batera, *urbanizaziorako eta lehenengo gizarte antolatuen* sortzeko oinarriak ezarri ziren. Hortik aurrera aurrerapen ikaragarriak esperimentatu ziren. Baina denbora luzez, zegoen teknologia, naturaren errekurtsoen ustiapen intensiboari limiteak jarri zizkion. Ondorioz, haren inpaktua naturan oso murriztua izan zen. Beraz, denboraldi honetan hondakinen arazoa erabat ezezaguna zen. Alde batetik, giza jarudetak ziklo naturaletan integratuak zeudelako eta bestetik, giza jarduerak sortutako azpiproduktuak ekosistema naturalak arazorik gabe xurgatzen zituztelako. Beraz, hondakinen produkzioa geroz eta murriztuagoa zela konturatzekoa da. Alde batetik, geroago aztertuko den industrializazio garaian zeuden makina sofistikatu horiek ez zeudelako, eta beste alde batetik, ingurumenarekin batera bizikidetzen zelako. Hau da, ingurumenak eskaintzen zituen produktuak erabili eta eraldatzen ziren, baina ez gizakiak asmatutako gailu elektronikoen bidez, baizik eta ingurumenak eskaintzen zituen eta gizakiak modu natural batean eraldatutako materialak erabiliz. Modu honetara, gizakiak ingurumenarekin zeukan elkarreragin etiko horren bitartez, hondakinen produkzioa xumeagoa zen eta gainera kontrolatuagoa zegoen. Hau da, gizakiak hondakinak beste gauza erabilgarri batzuk burutzeko probesten zituen. Hala nola, materialak bere probetxurako erabil ahal izateko eta bizi izateko batez ere. Argi eta agrbi, beste motatako bizimodu bat zen. Eta gainera, antzeman daitekeenez, hondakinak kudeatzeko planik ez zeuzkaten, gehienbat beharrezkoak ez zirelako. Beraz, bizimodua halakoa zen: biziraupeneko ekonomian oinarritutako sistema batekoa hain zuzen ere (*“Los residuos urbanos y su problemática”*, 2003).

Hala eta guztiz ere, neolitikoa eta industria iraultza aurreko tartea marko bezala hartzen baldin bada; jada hiri guneak sortzen hasi zirela; hauetan, hondakinen

bilketarako planifikaziorik ez zegoenean, arazoak sortzen hasi ziren. Batez ere izurrite eta epidemia gogorrak, zeinak gizartean inpaktu gogorrak eragin ziztuzten.

*Industria Iraultzaren* garaia aro modernoa eta aro garaikidearen artean kokatuko dena, marko bezala hartzen baldin bada, hau sortu izan zenean, XVIII. mendearen bukaeran, zientzia eta teknikaren garapenari esker eta komertzioa izugarri garatu izan zelarik, jarduera industrial berriak sortu ziren. Urbanizazioaren etengabeko hazkundera ekarriko duten boom demografiko eta ekonomikoak garai honetan sortuko dira ere. Hasiberriko hondakinen arazoa teknikoki tratatzeko lehenengo neurriak erabakitzen hasiko dira. Hauek, beste erritmo batekoak eta beste motatakoak izango dira, aurreko garaietakoekin alderatzen baldin badira. Batez ere aurreko ziklo naturalekin ezin daitezkeenak harremanatu, prozesu produktibo berrien ondorioz sortuko baitira. Baina batez ere, hondakinen arazoak, XX.mendearen lehenengo herenean, bere dimentsio kritikoak hartzen hasiko da. Hala nola, kontsumoan oinarritutako ekonomiaren zabalketarekin, erosi eta botatzearen kulturarekin, eta esperimendatutako aurrerapen tekniko ikaragarrien ondorioz. Beraz, marko historiko hau aztertuz, argi antzeman daiteke, hondakinak murrizteko neurri batzuk aurrera eraman zirela, baina ezinezkoa egin zela horiek aurrera eramatea. Alde batetik, hazkundera etengabea eta geldiezina zelako, bestetik, makinak eta industriak baita lanabesak etengabe sortzen ari zirelako; eta azkenik, hondakinen kopurua urabanizazio prozesuekin batera ikaragarri gora egiten zuelako. Beraz, hondakinen produkzioa geldiezina egiten ari zela argi eta garbi geratzen ari zen. Izan ere, geroz eta gehiago produzitzen ari zen; limiteak ezarri gabe gainera. Beraz, hondakinen produkzioa geroz eta zabalagoa egiten ari zen. Eta honen ondorioz, hondakinak lur barnean lurperatu edo suntsitu egiten ziren, baina legez kanpo beti ere, hau da, legearen barnean kontenplatuak ez ziren metodoen bidez (*“Los residuos urbanos y su problemática”*, 2003).

Beraz, hondakinen arazoaren jatorria aztertu izan dela, hauen hedadurari dagokionean, hondakinak hirietan sortzen direla gehien bat aipa daiteke. Hala eta guztiz ere, gaur egun hirietan sortzen diren hondakinak herrietara lekualdatuak direla azpimarragarria da. Zer esanik ez, hiri garatuek euren kontainer handietan, nola

itsasontziz hondakin kantitate ikaragarriak herrialde garatugabeetara edo garapenaren bidean daudenetara eramaten dituzten, adibidez.

Beraz, hondakinak hedadura nahiko zabala dute; eta mundu mailako arazo bat bezala aurkeztu beharrekoa da. Ez du bakarrik eragina herrialde garatuetan, baizik eta herrialde garatugabeetan eta garapenaren bidean daudenetan ere. Horregatik, hein handi batean, herrialde garatugabeak, Afrikan kasu, Kongo, Niger, Mali bezalako herrialdeak, herrialde garatuak kontainer nagusienetakoak dira (Albiol, 2014). Alde batetik, herrialde garatuak euren zaborrak bertan plazaratzen dituztelako, lekua ez dagoelako euren herrialdeetan; eta beste alde batetik, hondakinak bertan desagerraraziko direlako ustea dutelako. Bertan uzten baldin badute, bertan dauden organismoak jango eta xurgatuko dituztelako. (CRANA, 2012).

### **1.3. LEGEA VS KONTZIENTZIA ETIKOA**

Jada aurreko puntuan etxe hondakinak definituak izan direla eta horein jatorria eta hedadura zehaztu direla, legeak hurrengo aldarrikatuko du:

*22/2011 legeak, uztailaren 28koa, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa*, etxean sortutako hondakinak etxeko jardueren ondorioz garatuak ere izan direnak bezala definitzen ditu etxe-hondakinak. Irakurtzen jarraitzen baldin bada, zera erraten da: zerbitzuetan eta industrietan garatutako hondakinak “etxe-hondakin” bezala kontsideratuak direla. Etxeko erreparazioetan eta eraikuntza obra txikiengandik eratorritakoak, gailu elektriko eta elektronikoak, arropa, pilak, metagailuak, altzariak, eta mota horietako gaiak. “Etxe-hondakinak” ere: bide publikoetan, natur-guneetan, jolastokietan, eta hondartzak garbitzerakoan aurkitutakoak kontsideratuak dira. Hala nola, etxeko animalia hilak, lanabesak, utzitako ibilgailuak, gune berdeetan aurkitutakoak, laketa-guneetan aurkitutakoak ere “etxe-hondakinak” bezala. Beraz alde judicialak, definizio hori irakurri ondoren, Nafarroan plan oso interesgarri bat proposatu duela (Nafarroako Hondakinen Kudeaketa Plan Integratuak, 2010), hondakinen arazoari irtenbide bat ematearen inguruan hausnarketa egiteko agerian uzten da. Bertan, modu teknikoago batean, arazoari irtenbide bat bilatzen saiatzen da. Beraz, datu asko eta portzentai ugari agertuko dira. Hori dela eta, etikak askotan datu eta portzentaietatik aldendu daiteke beste irtenbide mota batzuk agertaraziz. Hala



nola, pentsatzearen, arazoak aztertzearen bai eta elaborazio kolektiboaren proposamenak agertaraziz ere; hau da, arazoa herriganatzearen proposamenak aurkeztuz. Beste hitzetan erranda, hiritarrak arazoaren soluzioak bereganatzea eta gobernuari beren inizatibak burutzeko ahalmena kontzienteki kritikatzearena hain zuzen ere.


Halaber, Casado da Rochak (2013), definizio honen aurrean zerbait desberdina pentsatzen du. Bere ustetan, hondakinak arazo bat bezala kontsideratua dagoelarik, etika adarretik arakatu behar dela pentsatzen du. Etika, azken finean, eguneroko bizitzetan erabat presente dagoelako. Beraren arabera, legeak ongi egon daitezke kontzeptuak, definizioak eta helburuak finkatzeko, baina nahiko mardulak direla aipatzen du. Hau da, hondakinen arazoa etikaren ikuspegitik arakatu behar dela, hondakinen arazoa ez delako alde judizialek soilik interpretatu behar proposatzen du. Hondakinak, egunerokotasunean txertatuak dauden elementu ukoezinak direlako, eta askotan, beste pertsona batzuei haien ardura atxikitzen zaielako. Horregatik eta kontzientzia hartzeko, arazo hau gizarte mailakoa dela barneratu behar da. Hau da, arazoari aurre egiteko ekintzen epe luzeko ondorioen kontzientzia hartu behar zaiela hain zuzen ere.

Baina orduan, zera pentsa daiteke: zergatik ez egin bi metodo horien arteko batasun bat? Hau da, legeak duen prezisioa eta gauzak modu logiko batean erakusteko ahalmena, etikak dituen teknika erakargarri eta ulergarriagoekin bateratuz. Modu honetara, bi alderdi horiek elkarren osagarri egingen lirateke eta arazoari aurre egiteko neurriak betegarriagoak izango lirateke.

Horretarako, zientziaren alderditik, etika barnean duelarik, batasun hori egiteko saiakera bat burutuko da:

Horretarako, Duschl (1994) arabera, zientziaren eta etikaren filosofian, hiru korronteen sailkapena burutzen du. Eta kasu honetan, nola etika eta legeen ikuspuntuak bateratu nahi diren, hondakinen arazoa bi ikuspuntu horietatik arakatuko da, etikan eta zientzian, hurrengo hiru korronteak kontuan hartuz (3. Irudia):

- Tradizionalista.
- Zientziaren Filosofia Berriaren korrantea.
- Biraketa Kognitiboaren korrantea.



### 3. IRUDIA: Zientziaren filosofiaren pentsamenduan, eskolak sailkatzeko eskema (Nussbaum, 1989)

Eskema hau (3. Irudia) pixka bat aztertzen bada, korrante guzti horien artean, bi bloke ezberdin daitezke: alde batetik, Bacon, Locke, Comte eta Descartes baita Kanten blokea. Eta beste alde batetik, Popper, Lakatos, Toulmin eta Khunen blokea. Lehenengo blokean aurkitzen diren zientifikoen arabera, "egia" existitu behar da halaberrez, eta gizakiek esperimientuen eta arrazoiaren bitartez bilatu beharko dute. Modu honetara, aipaturiko legean, arrazoia erabiliz beti ere, legea justifikatua egoteko, lehendabizi objektiboki eta enpirikoki esperimientatu beharko da.

Baina puntu honetan, bideak sakabanatuko dira eta Bacon, Locke gehi Comte, enpirismoa eta positibismoa defendatuko dute. Aldiz, Descartes eta Kant, arrazonamenduarekin bat egingo dute, besteengandik aldenduz. Modu honetara, azkeneko bi hauek, arrazionalismoa emaitza bezala edukiko dute. Halaber, aurretik aipatu den legea azken hitza edukiko du, hau da, "egia" bezala kontsideratuko dute, baldin eta esperimenduak ongi ateratzen badira eta hura prozesu arrazional bati jarraitzen baldin badio. Beste hitzetan erranda, legean agertzen diren datuak faltsuak badira eta ez badute koherentzia mantentzen euren artean; eta gainera, arrazionalak baldin ez badira, legea bertan behera geldituko da.

